Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

227 zenbakia
2021 **iraila**

Prest!

BERBETAN: ROBERTO ROBLES GONZALEZ IZARGI BIDAIAK

ERREPORTAJEA: ETXEBIZITZA DEFENDATZEKO HAMAIKA ARRAZOI **BARKUA:** 30 URTE AUTOGESTIOAREN DEFENTSAN

TOKIKOM

23-224-225-226-227-



Sustatzailea

Berbaizu euskara elkartea

Babesleak

Intxixu kastola

txantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

erraldoien ondalan konpartsa

BASKale

BIHOTZ ALAI FOLKLORE DANTZA TALDEA

ARRAVN TALDEA DEVSTV

ELORRI BERTSO ESKOLA

DEUSTUKO JAI BATZORDEA

S.D. DEUSTO

DEUSTUKO GAZTE LOKALA

zirikatzen!

eaj pnv deustu

EGUNSENTIA ESKAUT TALDEA 1982TIK

ernai Deustua

PARE HAUTSI DIRAGIN KATEAK

DEUSTUKO GAZTE ASAMBLADA

Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkartea da edukiaren erantzule bakarra

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Bilbao

Babestu Prest! urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

227 zenbakia
2021eko iraila

aurkibidea

Atxarte Salvador Navarro - Angel Prieto Fidalgo — **Iritzia** — 4

Trifonia Mamani Quintana — **Gurera etorriak** — 5

e erreportajea
Etxebizitza defendatzeko hamaika arrazoi

Topikoa eman dezake, baina denok daukagu etxe baten beharra. Etxebizitzari buruz mintzo garenean, badirudi ahaztu egiten zaigula guretzako funtsezkoa den espazio bati buruz ari garela hizketan, etxez aldatzea orrazkeraz aldatzearen antzekoa balitz bezala. — 6

Udalekuetako abenturei jarraiki — **Eskolak** — 10

Deustuar kortsarioak XVIII. mendean (I) — **Behin batean** — 12

Sanitik Hiru Erregeen Mahaira — **Artikulua** — 14

b berbetan
ROBERTO ROBLES GONZALEZekin

Bidaiatzea du desio eta pasio, baina besteren oporraldiak prestatzen darama bizitza osoa. Sektorearen egoerarekin arduratuta dago, bitartekari handiak sartu zirenetik bidaia agentzia txikiak jokoz kanpo geratu direlako. Penaz egin du atzera begirada, eta geroari ere tristuraz egiten dio so. — 16

Zumalde marmoldegia (1962) — **Irudiak berbetan** — 21

ARTEA Pabiloi 6: 10 urte sortzera jolasten

AUTOGESTIOA Deustuko Gazte Lokala: hiru hamarkada autogestioaren defentsan

PINTXODROMOA "Poke bowl"-a

KULTUR TXOTX Maddi Argote Ledesma eta Maite Sarasola Isazelaia

barkua bete herba — 24

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Jone Gartzia Gerra
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Nerea Cubillo, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura
Argazkiak: Ecuador Etxea
Publizitatea: Jone Gartzia Gerra
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Laura Freijo Iglesia
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01

Atxarte Salvador Navarro
Hego-haizearen zurrunbiloan

PREST!

Zenbat leku hartzen dute mila karakterek? Zenbat gauza esan daitezke eta zenbateraino garatu? Badaukat nik hainbeste esatekorik? Eta, gainera, norbaiten interesekoa izateko modukorik? Beharko, dagoeneko baiezkoa emana dut eta.

Ez da kontu samurra. Ez diot idaztea bera, testugintza ikasi egiten da eta honezkero zerbait ikasiko nuen. Malkartsuena zeri buruz idatzi bururatzea eta erabakitzea dela otutzen zait. Gainera, zein ikuspuntutik eutsi kontuari eta zein helbururekin… Kemena behar dela iruditzen zait, eta aitortu behar dizuet apur bat koldarra naizela halakoetarako.

Baten batek pentsa dezake esajeratzen ari naizela, ur azpian ere ez bainaiz isiltzen normalean. Baina, tira, bai, uzkurtu eta kikildu egiten nau atakak. Ez dira gauza bera elkarrizketa bat zabaltzea eta orri zuriaren erronka hau. Bertan idatzi eta inork erantzunik, oharrik, iruzkinik, ezta keinurik ere egiten ez dizunean… Hutsari esatea bezalakoa iruditzen zait, apur bat beldurgarria, ezta?

Tira, nire aurretik beste askok egin dute, zein baino zein hobeto, baita erronka handiagoei eutsi ere (emakumeengan ari naiz pentsatzen, jakina, inoiz ez baita gauza bera) eta horrek adoretzen nau. Horiei guztiei eskerrak, Plazan hurrengoei lekua zabaltzeagatik. Baita zeuei ere, esperimentu honetan lagunduko didazuelakoan.

Beraz, erronkari eusteko PREST!

Angel Prieto Fidalgo
Ikerlaria



Datuek diote...

Lanean nengoen interesgarri iruditu zitzaidan artikulu bat aurkitu nuenean. Nahiz eta nire lanaren ingurukoa ez izan, irakurri egin nuen. Ikerketak aztertzen zuen Italiako hainbat udalerritan izandako gorroto-delituen eta bertako alkateen orientazio politikoaren arteko lotura. Emaitzak, argi. Eskuin muturreko alkateak boterean dauden udalerrietan gorroto-krimenak gertatzeko aukera gehiago dago.

Autoaren irratia piztuta, eskuin muturreko alderdi baten bozeramaile bat entzun nuen hizketan. Gorroto-delituengatik ikertutako batena, hain zuzen ere. Argi utzi nahi zuen alderdi hori indarkeriazko ekintzekin lotzen zuen edonor auzitara eramango zutela. Geroxeago, txio bat irakurri nuen non alderdi bereko buruak aditzera ematen zuen egun horietan gertatutako gorroto-krimenen atzean seguruenik etorkin talde bat egongo zela. Gezurra izan, horixe esan.

Ohean, hausnartzeko momentua helduta, argi nituen bururatu zitzaizkidan galderen erantzunak. Gure lurraldean, Italian bezala, alderdi hauek ba ote dira gorroto-delituen auziaren zati bat? Ez da izango gorroto-delituen kausa bat politikariei entzutea munduko gaitz handien errudunak talde minoritarioak direla?

Trifonia Mamani Quintana

Jatorria: Cochabamba, Bolivia
Bizitokia: San Ignazio
Lanbidea: etxez etxeko laguntzaile soziosanitarioa

"Nire ama hizkuntza aimara da, gero kitxua ikasi nuen eta gero gaztelania, eta horrekin geratu naiz orain"

Testua: PREST!

Noiz etorri zinen Euskal Herrira?

2015. urteko hasieran etorri nintzen.

Zergatik?

Uda batean nire koinata bisitatzera etorri ginen eta asko gustatu zitzaigun hemengo klima eta paisaia berdea, nire sorlekuaren oso antzekoa baita.

Zerk harritu zintuen gehien Bilbora iristean?

Euskarak. Ez nuen aurretik inoiz entzun eta harritu egin ninduen.

Eta euskara ikasteko aukerarik izan duzu?

Bai, urte batzuk eman nituen Ekuador Etxean eta Berbaizun ikasten, baina nire bigarren alaba jaio zenean ez nuen jarraitzeko astirik izan. Oso gutxi dakit eta gehiago ikasi nahi nuke, baina denbora falta zait.

Zenbat hizkuntza dakizkizu?

Hiru. Nire ama hizkuntza aimara da, gero kitxua ikasi nuen eta gero gaztelania, eta horrekin geratu naiz orain. Besteak ez ditut egunerokoan erabiltzen, baina mantentzen ditut. Esaterako, aitarekin aimaraz mintzatzen naiz eta anaia batekin kitxuaz.

Nolakoa da zure jaioterria?

Cochabamba hiritik urrun samar dagoen herri txiki batetik nator. Inguru menditsua da, Euskal Herria baino askoz gehiago. Hemen mendira noanean nire sorterria etortzen zait gogora. Gutxi gorabehera itsas mailatik 3.000 metrora dago nire herria, eta muga asko ditu: argindarra, ura eta beste asko.

Itzuli ohi zara?

2011n itzuli nintzen azkenekoz. Beste behin bueltatzea gustatuko litzaidake.

Zer duzu faltan?

Familia, batez ere. Lehen paisaia, lekua, janaria eta abar nituen faltan, baina hainbeste denbora igaro ondoren horretara ohitu naiz. Hemen jende on asko ezagutu dut eta pozik nago. Lagun berriak egiten noa, jatorri desberdinetakoak.

Hemengo zer ez zaizu gustatzen?

Ez zait gustatzen Eusko Jaurlaritzak laguntzak kudeatzeko duen modua. Ez ditu hartzaileak kontrolatzen. Ezagutzen ditut laguntzak jasotako pertsona asko ez direnak arduratzen beren lana eta bizitza pertsonala hobetzeaz. Batzuek benetan behar dituzte laguntzak, baina beste batzuek iruzurra egiten dute laguntzak kobratzeko.

Eta zer duzu gustuko?

Pozik nago hemen egoteaz eta kultura eta hizkuntza berri bat ezagutu ahal izateaz. Gainera, hemen ordu erdian hondartzan zein mendian zaude, eta hori asko gustatzen zait.

ETXEBIZITZA DEFENDATZEKO HAMAIKA ARRAZOI

Topikoa eman dezake, baina denok daukagu etxe baten beharra. Etxebizitzari buruz mintzo garenean, badirudi ahaztu egiten zaigula guretzako funtsezkoa den espazio bati buruz ari garela hizketan, etxez aldatzea orrazkeraz aldatzearen antzekoa balitz bezala.

Testua eta argazkiak: Alogerekoak Deustu-Saniko Etxebizitza Sindikatua

Etxebizitza eskubide unibertsala hainbat konstituziotan, giza eskubideen aldarrikapenetan eta abarretan aipatzen da, eta etxebizitza politika oro ardatz horiei lotuta omen dago. Hala ere, eskubide horren urraketa etengabekoa da. Etxe kaleratzeak eguneroko ogia ditugu, eta horiek ez dira era zuzenean soilik gauzatzen – mediatikoenak izan ohi diren kanporaketen bidez –, zeharka ere egikaritzen da jendearen kaleratzea – prezioen igoerekin, gehiegizko klausulekin eta gainerako desjabetze prozesuen bidez –.

Gaur egun, gure auzoetan etxebizitza egonkorra edukitzeak mendekotasun ekonomiko larria dakar berekin, ziurtasunik eza eta estresa barne. Mendekotasuna bat-bateko etekina xedetzat duten eta gure kontura aberasten diren etxejabeekiko, funts putreekiko eta higiezinen enpresekiko; estresa hil-bukaerara ezin iritsi ibiltzeagatik, fakturak ezin ordaintzeagatik edota fidantza kenduko ote diguten beldur izateagatik; eta ziurtasunik eza ez jakitearren noiz arte geratuko garen gurean, gure auzokide eta lagunen artean, gure bizi proiektuarekin aurrera egiten.

Etxe kaleratzeek izen-abizen propioak dauzkate. Kasu bakoitzaren atzean, bere ohiko bizimodua atzean uztera derrigortua izan den familia bat dago, edo pobreziaren espiraletik askatu ezin den emakume bat, edota beren konfiantzazko inguru emozionalari uko egin behar dioten haur batzuk. Kontua da, gehienetan gertuen dagoen jendea ohartzen dela bakarrik halakoez, zirkulu intimo gertukoena, hain zuzen ere. Aparatu le-



gegile, ekonomiko-politiko eta mediatikoak egunero lan egiten du etxe kaleratzeak gu guztion begien bistatik kentzeko, azaleratzen direnean salbuespenak direla eman dezan, nahiz eta geroz eta gehiago diren kasuak. Dena bestelakoz ikusten da errealitate horrek gure atea jotzen duenean, etxe kaleratze agindua gurera iristen denean.

Bilboko lehenengo barrutiak Deustu, San Inazio, Erribera, Ibarrekolanda eta Arangoiti auzoak barnebiltzen ditu. Gainerako barrutiez ezberdintzen da biztanleria-dentsitate altuagatik eta gizarte-egituraren baldintzen aldakortasunagatik. Baina, barrutian bertan ere, ezberdintasun argiak antzeman daitezke herritarren errenta mailen artean edo higiezinen espekulazio motan. Deustun, adibidez, ikasle kopuru adierazgarria dugu, eta etxejabeek horretaz probetxua ateratzen dute etxebizitzen prezioak igoz eta baldintza prekarioak inposatuz. Merkatu horren baldintzak nekez onartu ditzake dagoeneko bertan bizi den auzokideen zati handi batek. Beste aldetik, Erriberan, azken proiektu urbanistikoek 'adreilukadaka' bertako auzokideekiko presioa igotzea baino ez dute lortu, bereziki alokairuan bizi direnekiko. Gainera, 2020. urtean, gure auzoetan 2.352 etxe huts zenbatzen ziren.

"Gaur egun, gure auzoetan etxebizitza egonkorra edukitzeak mendekotasun ekonomiko larria dakar berekin, ziurtasunik eza eta estresa barne"

“2020. urtean, gure auzoetan 2.352 etxe huts zenbatzen ziren”

Kanporaketa mota ezagunena etxe kaleratze zuzena da, Arangoitiko auzokide baten kasuari esker dakigun bezala. Udaberrian emakume batek eta haren alabak beren etxebizitza utzi behar izan zuten. Hau Udaleko Gizarte Zerbitzuen, Etxebideren (Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua) eta Bilboko epaitegien laguntzarekin gertatu zen, haiek eskainitako alternatiba ondokoa izanik: bat ere ez. Beste alokairu bat bilatzea edo adin txikiko alabarekin jada adinean sartuak diren senideengana jotzea izan zen “eskaini” ziotena. Alternatibarik ezak ez dauka, hala ere, baliabide-eskasiarekin zerikusirik; Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politikaren erantzukizuna da. Erakunde honek betetzea ezinezkoak diren baldintzak ezartzen dizkigu kaltetuoi, zentzugabeko labirinto burokratikoan murgilaraziz. Hala, herritar asko kale gorrian uzten dira.

Hori guztia etxebizitza arazoaren icebergaren tontorra baino ez da. *Zeharkako* etxe kaleratzeei dagokienez, 1. Barrutiko etxebizitzen prezioen igoeraren ondorio larrienetako bat da jende askok auzotik alde egin behar izana, eta errealitate horrek edozein adineko jendeari eragiten dio. Higiezinen enpresek, euren aldetik, horren guztiaren konplizeak izateaz gain, formula berri bat asmatu dute maizterrak kanporatu ahal izateko, itxuraz kaltegarria ez den era fin eta makurra, alegia. Horregatik deritzegu *zeharkako* edo ezkutuko etxe kaleratzeak: azken finean, gu kaleratzeko nahia geratzekoari gainjartzen baitzaio.

Azken boladan, eta, aipatutakoaren harira, Alogerekoak Etxebizitza Sindikatuan zenbait lekukotasun jaso ditugu. Kasu gehienetan, jokaera bera da: “Mota horretako kontratu guztietan dagoen klausula bat erabiltzen dute –azaldu zigun kaltetu batek–. Klausula horrek maizterren kanporaketa justifikatzen du baldin eta higiezina jabearen senide baten etxebizitza bihurtuko bada”. Higiezin agentziak etxejabeari gomendatzen dio klausula hori erabiltzeko maizterrak etxetik joan daitezen. Puntu horretan, higiezin agentziak espekulaziorako aukera biribila ikusten du eta etxebizitza merke antzean erosteko saiakera egiten du, etxejabeak salerosketarako daukan presa baliatuz: “Erosketan parte hartzen duena higiezinen enpresako kidea da, nahiz eta erosketa burutu bitartean partikular itxurak egin. Aurrekontratu bat sinatzen dute haien artean eta esaten dizute bi hilabeteren buruan etxetik atera behar duzula”.

Klausula hori maizterren eskubideen aurkakoa da. Gertuko iturri baten arabera, klausula horren interpretazioarekin arazo larria dago, epaitegietan alokatzailearen interesak defendatzeko joera baitago, alogerekoenak alde batera uzten dituzten bitartean. Emaitza, dena den, beti da bera: bat-batean, alogerekoek beraien etxebizitza utzi behar dute, beste toki bat ahalik eta lasterren aurkitzeko aukerarik gabe sarri, hori egiteko denbora tartea nahiko motza izan ohi baita. San Inazioko auzokide bat egoera horretan dago: “Klausula hori soilik etekinak ateratzeko eta espekulazioa sustatzeko dago egina”. Eta zera gehitu du: “Batez ere higiezinen enpresen eta partikularren artean. Etxe kaleratzeak arintzeko balio duen erreminta hutsa da, berdin dio zein ikuspuntutik aztertzen dugun”.

Alogerekoak, 1. Barrutiko Etxebizitza Sindikatuak, argi dauka: gure auzokideak auzoan eta beraien etxebizitzetan geratzea nahi dugu, etxe kaleratze guztiak eten nahi ditugu. Izan ere, gure auzoak seguruagoak eta bizigarriagoak egiteko ezinbesteko baldintza dela uste dugu. Hainbat kanpaina egin ditugu horretarako: pasa den ikasturtean hasi eta zuen postontzietaraino eraman genuena, alokairuen prezioen murrizketaren aldeko aldarrikapena, kalitatezko etxebizitza publikoaren aldekoa... Horrez gain, hutsik dauden higiezinen erabilpena defendatu eta etxebizitzak ezkutatzen duen bortizkeria –indarkeria matxista, besteak beste– agerian jarri genuen.

Etxebizitza Sindikatuaren lana justifikatzeko nahikoa arrazoi dago, etxebizitza duin baten alde borrokatzen duen orok ondo dakien bezala. Etxebizitzaren arazoa indibiduala dela eta bakoitzak bere kabuz aurre egin behar diola sinetsarazi nahi digute. Baina, berez, egiturazko arazoa da. Hori dela-eta, gure erantzunak kolektiboa izan behar du, eta oinarritua egon behar da auzo-burujabetzan eta elkarlaguntzan.

Etxebizitzarekin edozein arazo baldin baduzu edo proiektuan interesatuta baldin bazaude, astelehenetan 18:00etan Errondoko Auzo Exera hurbildu edo idatzi iezaguzu 699767915 zenbakira.

Txantxiku Aisialdi Taldea

Lorpen txikiak

"Berriz ere pandemia erdian… uh-uh-uh-uh-uh" doinuarekin hasten da aurtengo Txantxikuko udalekuetan konposatu dugun abestietako bat. Izan ere, udaleku batzuk antolatzea sekulako erronka bazen pandemia aurretik, aisialdi taldeetako begiraleok baino ez dakigu zenbat zaildu den orain hau guztia posible egitea. Baina egin ditugu udalekuak aurten ere, Getadarren oraingoan -Nafarroako Ezporogi udalerriko herri hustu batean- eta 100 haur eta gazte inguru elkartu gara, oso luzez hausnartu ditugun balore batzuenpean bizitzeko asmoz, 12 egunez bada ere.

Ohartu gara begiraleok Txantxiku barrutik bizi dugunok zertan ari garen badakigun arren, kostatzen zaigula inguruko komunitateari honek daukan balioa azaltzea, ez daukala Txantxiku bezalako proiektu batek merezi duen aitortza. Beraz, PREST!eko zutabetxo hau baliatu nahi dugu aurtengo lorpen txiki batzuk zuokin guztiokin partekatzeko.

Euskarazko arnasgunea sortu dugu guztion hizkuntza-ohiturak astinduz, oraindik %100ekoa ez den eta erdal joerak ditugun arren. Denontzako espazio erosoa eraiki dugu, harremanak errespetuan, era horizontalean eta ezberdinen artean bultzatuz. Lotsak eta beldurrak albo batera utzi ditugu askotan, nork bere mugak identifikatu eta gainditzeko tresnak jarri ditugu, eta ahaldundu gara. Komun komunak erabili ditugu. Elkarren aurrean biluztu gara. Sormena landu dugu...

Beraz, orain, lorpen hauek guztiak eta beste asko egunerokoan txertatzeko eta inguruan kontagiatzeko lana dugu. Izan zaitezte bihurri, eduki konfiantza zuen buruengan eta bizi euskaraz!

Gazte Alai Aisialdi Taldea

Gure askatasun txikian

Aurten bai! Uztailaren 4an motxilak autobusean sartu eta Gazte Alaiko kanpamentuari hasiera eman genion, behin antigeno frogak eginda. Ziurgabetasun handiko hasiera izan zen, ezjakintasun eta zalantzaz beterikoa, baina merezi izan zuen ahaleginak, berriz guztiok elkartzea lortu baikenuen. Begiraleok egun batzuk lehenago bertaratu ginen Gopegira (Araba), hurrengo hamabost egunetan gure etxea izango zena prestatzeko.

Umeak iritsi, kanpin-dendak muntatu eta espazioa ezagutu genuen. Lehenengo kontaktu orduak, elkar ezagutzeko momentuak eta urduritasuna pixkanaka-pixkanaka kentzeko uneak izan ziren. Hurrengo hamabost egunetan zehar goiz zein arratsaldeetan denetarik egiteko aukera izan genuen, besteak beste, jolasak, eztabaidak, dinamikak eta alboko mendietara ihesaldi txikiak. Gauak, berriz, gaubelez, diskotekaz eta gitarraz abestutako kantuez blaitutakoak izan ziren. Nahiz eta aurten eguraldia bestelakoa izan den, errekan fresko egoteko tarteak askotarikoak izan dira, dutxa eta harrikoa tarteko.

Hamabost egun igaro ostean, uztailaren 18an umeek eta gazteek aurtengo kanpamentuari amaiera eman zioten, pena handiz. Begiraleok, berriz, beste egun batzuk geratu ginen bertan muntatutako azpiegitura guztia batu ahal izateko, baina lortutakoarekin oso harro.

Txepetx Aisialdi Taldea

7 egun mendi puntan

Ekainaren 28an eman genien hasiera egungo Txepetxen lehen udalekuei. 2018an Saniko aisialdi taldea berreskuratu genuenetik, haur eta begiraleek elkarrekin egin dugun egonaldi luzeena izan da, eta urduritasuna sumatzen zen lehenengo egunean. Metroa eta autobusa hartu eta Alonsotegiko geralekuan jaitsi ginen denok, aterpetxera iristeko aldapatzarra igo behar genuela jakin gabe. Orduan ezin imajinatu, baina gure egunerokotasun bihurtu zen etxetik atera eta aldapa gora eta aldapa behera ibiltzea. Mendi puntan bizitzeak badu alde txarrik ere.

Alde onak, ordea, beti gailentzen zaizkie txarrei. Zuhaitzez eta animaliez inguraturik egon ginen aste osoa; zomorro txikienen bisita ere izan genuen – zorriak eta kaparrak, esan behar da-. Etxetik ateratzeko eta hamaika kontu egiteko parada ere izan genuen: herria ezagutzeko ginkana, errekan bainatzeko ibilaldia, Sopuerta Abentura parkera txangoa, parrillada… Mendi puntako aterpetxean ere ezin gusturago ibili ginen: ur jolasak egin genituen, sukaldaritza tailerra, eskulanak, olinpiadak, langileen eguna… eta gaubelak! Ai, gaubelak, zenbat irri eta negar egin dugun gaubeletan.

Uztailaren 4an bueltatu ginen auzora, pozik eta gehiagorako gogoekin. Izango dugu gehiago, ez kezkatu, dagoeneko bueltan gara eta!

Egunsentia Eskaut Taldea

Corro 2021

Normaltasunaren bila Pasionisten eskutik Korroko zelaia aurkitu genuen. Azken urte hauetan kanpamentuak beste taldeekin egin izan ditugu, baina aurten guztiok adostu genuen bakarkako udalekua aurrera eramatea; gainera, etxerik gabe. La Paul landara joan ginen eta 25 ume eta 11 begiralek bertako biztanleria handitu eta alaitu genituen. Ikasturteari amaiera emateko aukera hobeezina izan zen, eta ama naturak gure aldera jo zuen, euritsu izan zitezkeen egunak eguzkitsu bihurtuz.

Han egonda Covid-19 egoera ezin genuen ahaztu, baina inguru horretan egoteak espazio ugari eta aukera asko eman zizkigun: bakoitzak bere dendan lo egin ahal izatea (mila esker Jaiotza dendengatik); adarren guneak inoiz baino handiagoak eta bananduagoak egitea; zelai baten azalera osoa erabiltzea; zaldiak, behiak eta beste animalia batzuk ezagutzea… Hau guztia ibairik gabe ez litzateke posible; izan ere, Koskorrek eraikitako zubiez apainduta, erreka txiki honek zelai osoa gurutzatzen zuen, inguruari hezetasuna emanez eta Kaskondoentzako harriak eskainiz otoitz-borobila eraikitzeko. Baina, ibaia ez zen landa gurutzatzen zuen bide bakarra, Ibilbide Luzeei esker gure Korro maitea ondo lotuta zegoen inguruarekin eta Trebeek erabili ahal izan zuten urrunetik etortzeko.

Begiraleen, umeen eta bertakoen arteko eskuzabaltasunari ezker esperientzia ona izan da une orotan. Hau dela eta, eskaut bizimodua geure artean eta herrian zabaldu ahal izan dugu, zailtasunei irribarretsu aurre eginda.

DEUSTUAR KORTSARIOAK XVIII. MENDEAN (I)

Deustuarrek kortsario gisa jardun zuten itsasoan eta deustuarrak kortsarioen biktimak izan ziren itsasoan. Baina zer ziren kortsarioak? Itsaslapurrak? Ekar dezagun argi apur bat gai kitzikagarri honetara.

Testua: Hektor Ortega



Sainte Genevieve fragata kortsarioa (1745). Nuestra Señora de la Piedad ontzia oso antzekoa bide zen.

Umetako irakurketen artean Emilio Salgariren *El Corsario Negro* nobela eduki genuenok zorionekoak izan ginen, duda barik. Asko gozatu genuen eta gainera, ikasi genuen hura ez zela urrutiko kontu bat, Antilla aldeko itsaso urrunetan gertatu arren. Halako baten apur bat harrotu ere egin ginen kortsario beltzaren kide Carmaux baionarra zela jakin genuenean, Michel le Basque (Mitxel Etxegorri lapurtarra, Miguel el Vasco gisa itzulita aurkeztu zigutena) Maracaiboren aurkako erasorako agertu zela ahaztu gabe. Bai, euskaldunak ere ibili ziren kortsario, askotan gainera. Baina zer zen kortsarioa? Kortsarioa eta pirata bat dira?

Bada, praktikan batzuetan desberdintzen gaitzak baziren ere, teorian alde handia zegoen itsaslapurren eta kortsarioen artean. Kortsarioak bere gobernuaren baimena (kortso agiria) behar zuen, etsaien ontzien edo gerra kontrabandoan zebiltzan ontzi neutralen aurka bakarrik jo zezaketen eta harrapatzen zituen ehizaki guztiak auzitegiek legeztatu behar zituzten.

Piraten historiaren gainean jakin nahi duenak Marcus Rediker historialariaren ikerlanetan aurkituko ditu behar diren jakingarri guztiak. Gu kortsarioetan zentratuko gara. XVI eta XVII. mendeetan ere izan ziren arren, XVIII. mendekoak hartuko ditugu hizpide.

Kortsoa egiteko elkarteak

Enrique Otero Lana ikertzaileak erakutsi zuenaren arabera, XVIII. mendeko euskal kortsarioak (Donostia, Baiona eta Bilbo aldekoak, batez ere) ipar atlantikoan ibili ziren gehienbat, Itsaso Zeltikoa esaten dioten eremuan, Irlanda eta Ingalaterratik hegoaldera. Arrazoia? Sasoi hartan, hala lapurtarrentzat nola bizkaitar zein gipuzkoarrentzat, ontzi etsaiak britainiarrak zirela.

Izan, jarduera garestia zen, hasi aurretik ere: ontziak (XVIII. mendearen erdialdean, fragatak gehienbat) eta bere armamentuak diru asko eskatzen zuen. Gainera, eskifaiari (marinelak eta fusilariak) soldataren parte bat aurreratu behar izaten zioten eta, jakina, hornidurak (jatekoak, batez ere) behar izaten zituzten.

Horregatik, ez gara harrituko ontzi kortsarioaren atzetik enpresa bat zegoela jakitean. Alegia, elkarte bat osatzen zen, kapitala jarri zuten bazkidez osatuta. Jakina, enpresa guztietan bezala, euren asmoa diru asko irabaztea zen, ahalik eta gehien ahalik eta denbora gutxian.

Ibaizabaleko itsasadarreko ontzigintza buru belarri lotu zitzaion kortsoari 1739-1748 bitarteko anglo-espainiar gerraren bigarren zatian. Hasieran donostiar kortsarioak ibili ziren gailen baina azken urteetan bizkaitarrak gehiago izan ziren. 1743an itsasoratu zen Nuestra Señora de la Piedad ontzia ingelesen aurkako kortsoa egiteko asmoz, Portugaleteko Juan Florencio Miranda kapitain eta Deustuko Francisco Pedro teniente zituela. Francisco Pedro hura izatez frantziarra omen zen, baina Deustuan bizi zen, Olabeagan, alegia, gaur Erribera esaten diogun aldean.

Hamasei bazkide zituen ontzi kortsario haren elkarteak. Tartean ziren Miranda eta Pedro deustuarra, baita botikak ekarri zituen botikaria ere, kopuru txikiekin. Baina diru gehiena Bilboko merkatariek jarri zuten: Juan Jose Goitia Kontsulatuko sindikoak 1.200 peso ekarri zituen, Nicolas Iribarrenek 500, Jacinto Uria Nafarrondok 300... Ontzigile-armadoreak ahaztu gabe: Manuel Zubidea (750 peso) eta Lorenzo Aresti (600).

Bazkideek batzarra egin zuten 1743ko azaroaren 22an. Lehenengo erabakia ontzi kortsarioaren zuzendariak izendatzea izan zen. Bilbon Manuel Agirre Luja eta Jose de la Concha jarri zituzten zuzendari; Portugaleten, berriz, Manuel Zubidea eta Lorenzo Aresti. Laurak ziren elkarteko bazkideak, jakina, baina lan horien truke kobratu behar zuten. Eta zein zen lana? Kortso agiria ahalik eta azkarren lortzea eta ontzia hornitzea "para que con la mayor brebedad se haga a la bela". Jarraian, kapitain eta tenientearen izendapena (Miranda eta Pedro) onartu zuten, baita zegokien alogera ere: ehun dukat eta harrapakinen %1.

Abenduaren 9an bazkideek beste bilera bat egin zuten. Ontzia hornituta zegoen, armatuta ("con doze cañones, ocho pedreros y las armas de mano correspondientes") eta itsasoratzeko prest. Eskifaia ontziratzea baino ez zen falta eta horretarako alogera ordaindu behar zioten. Hala egitea erabaki zuten.

Itsasoratu egin zen Nuestra Señora de la Piedad. Hurrengo batzarra 1744ko urtarrilaren 29an egin zuten bazkideek. Artean ontzi kortsarioa portuan zen, ehizaki batekin. Bazkideek etekinak nahi zituzten. Horren ondorioz, ontzi kortsarioa saltzea erabaki zuten, baita ehizakia eta haren merkantziak (azukrea, anil, larrua, okela, kotoia...) ere. Enkanterako fragata 1.500 pesotako prezioa jarri zuten; harrapatutako ontzirako, berriz, mila peso.

Hala ere, gure datuak zuzenak badira, ontziak jarduera kortsarioan jarraitu zuen, ugazaba berrien eskuetan eta Juan Florencio Miranda kapitainaren aginduetara. Zalantzarik gabe, kortsoa orduan inbertsio emankorra zen, oso arriskugarria baina etekin handiak ekartzeko modukoa.

kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

SANITIK HIRU

Txikitan Euskal Herria ekialdetik mendebaldera zeharkatzen duen ur-mugaren existentziaz jakin nuenetik, oinez egiteko ideia sartu zitzaidan buruan. Handik urte batzuetara informazioa bilatzen ari nintzela, hura jarraitzen zuen GR edo Ibilbide Luze bat omen zegoela topatu nuen, GR12a, hain zuzen. "Omen" diot, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zatia aspaldi deskatalogatuta baitago, mantentze falta dela eta.

Testua eta argazkiak: Ostebi Bañuelos Ganuza

Urte askotan buruan izan dut ibilbidea egitea, baina lana eta bestelako konpromisoak tartean, ezinezkoa izan zait behar beste egun libre izatea. Aste Santuan zeharkaldi bat egiten ari nintzela GR12aren markak ikusi eta hau egitearen ideia bueltatu zitzaidan burura. Urte aproposena izango zela pentsatu nuen, eta denbora nahikoa ere izango nuenez, planifikazioarekin hasi nintzen. Esan bezala, ibilaldiaren erdia, hau da, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako partea, ez da ofizialki existitzen eta horren inguruko informazioa topatzea ez da erraza. Nafarroa Garaiko, Behe Nafarroako eta Zuberoako zatia, ordea, bai; gida ofiziala egonda ez nuen arazorik izan.

Informazioa bilatzen aspaldiko liburu bat topatu nuen, eta bertan GR12ak egiten duen ibilbidearen antzeko bat agertzen zen, Karrantzatik hasi eta Belaguan bukatzen dena. Nafarroako partea ere, ez zen zehazki GR12 ofizialaren ibilbidea, baina alde batetik besterako ibilbide bat zehazten zuenez honetan oinarritzea erabaki nuen, GR12aren gida ofizialarekin batera.

Ibilbidea Karrantzan hasten zen eta, bi jardunaldiren ostean, Bilboko loturarekin bat egiten zuen, alegia, Ganekogorta menditik Laudiora bidean dagoen Fuente del Espinonekin. Bilbotik irtenda ibilbidea bertan hartzeko aukera zegoen. Beraz, etxetik aterata ere, bidea egiteko aukera neukan, eta horrela egitea erabaki nuen. Gainera, azken jardunaldi gehigarri bat zegoen, Belaguan ibilbide zirkular bat egiten duena. Hiru Erregeen Mahaitik oso hurbil igarotzen da hau. Bertan egonda, Euskal Herriko tontorrik altuena igotzearen aukera planteatu nuen, etxetik, auzotik, Hiru Erregeen Mahaia egitea, alegia.

Nahiz eta liburuan eta gidan egun bakoitzeko ibilbidea ondo azalduta egon, lo egiteko lekuek arduratzen ninduten, ez baitzeuden zehaztuta. Ibilbidea asko moldatu gabe, lo egiteko tokiak eta moduak bilatu nituen, eta horrek eman zidan lan gehien. Azkenean, denetarik antolatu nuen gauak igarotzeko: ostatuak, bibakak, aterpe libreak, ehiza postuak… Egun batzuetan familia eta lagunen laguntza ere izan nuen, kanpindenda eta furgonetekin etorri ziren nirekin gaua pasatzeko.

Arduratzen ninduen bigarren gauza gaitasun fisikoa zen. Ez da gauza bera jardunaldi batean ibilbide luze eta gogor bat egitea eta hurrengo egunean etxean atseden hartzeko aukera izatea, edo motxila handiarekin egunero ibilbide luzeak egin behar izatea. Horregatik, entrenamendu bikoitza egin behar nuen: ibilbide luzeak egin egun batzuk jarraian, indarberritze gaitasuna hartzeko, eta pisu gehigarria eraman. Aste Santutik aurrera, ia egunero, lanetik ateratzean motxilan pisua sartu eta 20 kilometro inguruko ibilbideak egiten hasi nintzen, uztailak 7an Ibilbide Luzea hasi nuen arte.

Denbora guzti horretan egun bakoitzeko ibilbidea pentsatzen, lo egiteko leku eta moduak bilatzen, erosketak eta erreserbak egiten, lagunekin antolatzen... eta antzeko lanetan egon nintzen buru-belarri. Azkenean, honako ibilbidea prestatu eta burutu nuen:

ERREGEEN MAHAIRA

1.- San Inazio-Orozko
2.- Orozko-Otxandio
3.- Otxandio-Lizargarate
4.- Lizargarate-Aizkorri
5.- Aizkorri-Zegama
6- Zegama-Lizarrusti
7.- Lizarrusti-Lekunberri
8.- Lekunberri-Belate
9.- Belate-Urkiaga
10.- Urkiaga-Orreaga
11.- Orreaga-Paso de las Alforjas
12: Paso de las Alforjas-Puerto Larrau
13: Larrau-Belagua.
14: Belagua-Hiru Erregeen Mahaia-Belagua

Bidaiaren argazkiak

Atxuri pasabidea, Gorbeia.

Aizkorri tontorra.

Lizarrustiko basoa.

Irati.

Igaratzako aterpea, Aralar.

Hiru Erregeen Mahaia

berbetan

ROBERTO ROBLES GONZALEZekin

Izargi Bidaiak agentziako jabea

“Bidaia agentzia tradizionalen

Bidaiatzea du desio eta pasio, baina besteren oporraldiak prestatzen darama bizitza osoa. Sektorearen egoerarekin arduratuta dago, bitartekari handiak agertu zirenetik bidaia agentzia txikiak jokoz kanpo geratu direlako. Penaz egin du atzera begirada, eta geroari ere tristuraz egiten dio so.

Testua: Jone Gartzia Gerra
Argazkiak: Ecuador Etxea



etorkizuna oso latza da”

Zenbat urte ditu Izargi Bidaiak agentziak?
1985ean hasi ginen nahiko modu amateurrean. Enpresa ez zen legezkoa ere, bidaia klub bat bezalakoa zen. Ibiltari markarekin autobus eta kanpin bidaiak antolatzen hasi ginen Marokora, Korsikara, Italiara, Europara... Europa osoa zeharkatzen genuen: Grezia, Turkia, Polonia, Gales, Eskozia… Pixkanaka forma hartzen joan zen eta enpresa legeztatzea eta Izargi Bidaiak muntatzea erabaki genuen.

Eta zer gertatu zen Ibiltarirekin?
Ibiltari Bidaiak markak martxan jarraitzen du, bidaia bereziak eta ezberdinenak sustatzeko erabiltzen dugu. Mundu honetan dena dago asmatuta, baina gu gauza desberdinak antolatzen saiatzen gara. Urte askoan autobus eta kanpin bidaia-ereduak funtzionatu zuen, horrelakorik existitzen ez zelako. Gero, jendearen pentsamoldea aldatzen joan da bidaiatzeko orduan, *low cost* direlakoak agertu dira eta eredu horrek desagertu egin behar izan zuen.

Nola aldatu da sektorea ordutik?
Errotik.

Ba al dago erantzulerik?
Lehenik eta behin, hegazkin-konpainiak. Lehen hegaldi guztiak konpainien bulegoetan edo bidaia-agentzietan saltzen ziren. Internetera salto egin zutenean, bidaia-agentziak alde batera utz zitzaketela ikusi zuten. Ostatuekin antzeko zerbait gertatu zen: Booking motako bilatzaileak agertu ziren, eta prezioak astakeria bat jaitsiz sartu ziren. Hegazkin-konpainiak hasi ziren, eta orain hotelak hasi dira praktika horiekin.

Ondorioak ekarriko ditu horrek.
Funtsean, bitartekariak kentzeko ideia horrekin, bitartekari handi bat eta bakarra sortzen ari dira. Horrek kontrolatuko du guztia eta nahi dituen prezioak jarri ahal izango ditu. Enpresa handiak marka desberdinen pean mozorrotzen dira lehia bat dagoela pentsarazteko, baina ez dago halakorik.

Merkeagoa da bidaiak nork bere kabuz antolatzea?
Orain aldea ez da hain handia; izan ere, kasu batzuetan Interneten agentzietan baino garestiago saltzen dituzte txartelak, baina jendeak buruan sartuta dauka Booking merkeagoa dela. Egia da Bookingen nahi duzuna aurki dezakezula.

Joera nabaritzen da?
Kontuan izan bidaiatzen duen jendearen %70 inguruk ez duela agentzien bidez prestatzen bidaia. Orain Interneten badaude zure kabuz antolatzeko tresnak, baina horrek denbora eskatzen du. Denbora hori duenak bere kabuz antolatzen du, baina mundu guztiak ez du horretarako astirik.

“Bitartekariak kentzeko ideia horrekin, bitartekari handi bat eta bakarra sortzen ari dira”

berbetan

ROBERTO ROBLES GONZALEZekin

▷▷ SAKONEAN

“Izargi Bidaiak ixten dudan egunean nire zaletasuna bidaiatzea izango da”

Gustuko duzu bidaiatzea?
Bai, eta askoz gehiago bidaiatu nahiko nuke. Izargi Bidaiak ixten dudan egunean nire zaletasuna bidaiatzea izango da. Baina ez nintzateke bidaia-agentzia bateko bezero ona izango. Beste modu batean bidaiatzea gustatzen zait, ez zaizkit bidaia prestatuak eta itxiak gustatzen ez. Niri lekuetara iritsi eta galtzea gustatzen zait.

Nora joango zinateke?
Hainbat tokitara. Adibidez, Egiptora. Betiko obsesioa izan da eta joateko hainbat aukera izan ditut, baina arrazoi ezberdinengatik ezin izan naiz joan. Latinoamerikara ere joan nahi nuke: Argentina, Peru… edo Kenyako eta Tanzaniako parke naturaletara. Japoniak eta Txinak, adibidez, ez didate atentzioa ematen.

Baduzu bidaiatzeko aholkurik?
Bidaiatzean lekuaren esentzia bilatu, eta aurreiritziak alde batera utzi behar dira. Aldez aurretik pentsatutako ideia batekin joanda, ez duzu bidaia gozatuko.

Duela gutxi estatistika bat atera zen: bidaien % 80 lanorduetan gordetzen dira. Noski, ahal baduzu ez zaizu axola laneko denbora bidaia antolatzen inbertitzea.

Abantailarik izango du bidaia agentzia batean antolatzeak.
Hemen detailea zainduago dago. Gure lanak alderdi psikologikoa du: jendeari zer gustatzen zaion ulertu, zenbat gasta dezakeen ikusi, zer eskain diezaiokezun… Guk bidaia diseinatzen bezeroari gustatzen zaiona aurkitu nahian. Gainera, mekanismo gehiago ditugu helmuga exotikoagoak prestatzeko eta ezustekoak konpontzeko, adibidez, bertan behar uzteak eta ezustekoak. Pandemiaren ondoren ikusi dugu jende gehiago hurbildu zaigula, konfinamenduan zehar bidaiarik gabe eta dirua jaso ezinik geratu zelako.

Zein jende mota hurbiltzen da?
Gero eta adineko jende gehiago etortzen da, 40-50 urtekoak. Jende gazteagoa ere etortzen da guri informazioa atera nahian, gero beren kabuz erabiltzeko,

eta urrutitik ikusten zaie asmoa.

Zein da gehien saltzen duzuen helmuga?
Historikoki bidaia asko saldu ditugu Kubara, hurbiltasun politikoagatik. Helmuga batzuk saltzea asko kostatzen zait, ez baitzaizkit gustatzen, adibidez, itsas bidaiak.

Eta zein bereziena?
Bere garaian Marokoko basamorturako bidaiak izan ziren. Orduan berrikuntza izan zen, oso deigarria. Egun, akaso, Uzbequistan aldea eta Albania dira bitxienak.

Zer etorkizun dute bidaia agentziek?
Agentzia tradizionalen etorkizuna oso latza da. Inoiz ez dira ikusi auzoko eta gertuko merkataritza tradizional gisa, ez dakit zergatik. Bestalde, sektoreak duen beste arazo handi bat da gure lana ez dela inoiz balioetsi. Jendeak aurrekontuak eskatzen ditu, liburuxkak eramaten ditu guri lana eta dirua kostatzen zaigula pentsatu gabe. Sektore honek duen irtenbide bakarra oso gauza zehatzetan espezializatzea da, eta gero eta aukera gutxiago daude, dena asmatuta dagoelako.

Asko aldatu da bidaiatzeko era?
Bidaia egonaldiak asko laburtu dira. Hasi ginenean oso normala zen jendeak hilabeteko bidaiak eskatzea, gero 15 egunera jaitsi zen, gero 7ra… eta orain jendeak hiru eguneko bidaiak egiten ditu. Jendeak gero eta joera handiagoa du oporrak egun gutxitan pilatu eta oporraldi gehiago izateko.

Eta gazteen artean, zein da joera?
Pena ematen dit ikusteak sektore honek ez duela irtenbide askorik. Lehenik eta behin, gazteak beste modu batera bidaiatzen ari direlako. Jendea bizi den lekuarekin gero eta antzekoagoa den tokietara joaten da, eta horrek aukerak kentzen dizkio bidaiari. Bidaiaren interesgarriena gauza ezberdinak ikustea da, kontrastatzea.

Zer deritzozu egun turismoa egiteko moduari? Hau da, zenbat eta denbora gutxian ahalik eta leku gehien bisitatzekoa, zenbat eta urrunen

hobe…
Oporrak egun gutxitan kontzentratzea akatsa da. Horrek asko ahultzen du bidaia, ez du denborarik ematen benetan lekua ezagutzeko. Lehen Viena, Praga eta Budapesteko bidaia mitikoa 15 egunetan egiten zen, bada, orain, 7tan egiten da. Denak oso lotuta joan behar du, eta ez du aukerarik ematen herrialdearen errealitatea ikusteko eta hirian zehar galtzeko.

Posible da modu jasangarrian bidaiatzea?
Hegazkinez bidaiatzea ez da jasangarria. Hegazkinaren alternatibak gutxi dira eta abiadura handiko trenek ia gehiago kutsatzen dute. Bidaia jasangarria izatea gehiago dago jendearen jarreraren esku, teknologietan baino. Abiadura handiko trena egiten tematu direnez, hegaldiak murrizteko baliatu beharko lukete, hau da, Bilbo-Madril kentzeko, adibidez. Baina, ez da garraiobidea bakarrik, jendeak bidaiatzeko orduan duen jarrerak ere eragina du: tokiarekiko eta ingurumenarekiko errespetua. Jendea ez da arduratzen joaten den lekuez.

Nola egiten duzu saltzen dituzun leku guztiak ezagutzeko?
Nahiko nuke nik! Mundu honetan sartzen zarenean asko bidaiatuko duzula uste duzu, baina azkenean ez duzu hainbeste bidaiatzen. Hala ere, Interneten tresna asko daude konparatu eta ikusi ahal izateko. Bezeroek ematen diguten informazioa ere erabiltzen dugu.

“Oporrak egun gutxitan kontzentratzea akatsa da. Horrek asko ahultzen du bidaia, ez du denborarik ematen benetan lekua ezagutzeko”

Lan eskaintza

Berbaizu Euskara Elkarteak lan poltsa zabaldu du hiru arlo desberdinetan. Helburua esku artean dituen proiektuak aurrera eramatea eta erronka berriei aurre egitea da. Interesdunak urriaren 8a baino lehen bidali dezake bere curriculuma berbaizu@euskalnet.net helbidera.

Lanak

Hainbat dira azken aldian gure auzoetan egindako obrak eta aldaketak. Kronologikoki zerrendatzearren, Sepurukoatxako begiratokia, Done Petriko kioskoa eta plaza bera, eta Elorrietako parkea aipatuko ditugu, Montenegro jatetxearen eraistea ahaztu gabe, Erandion egonagatik ere. Maiatzean bota zuten aipatu azken hau, 2017tik itxita zegoena eta nagusientzako egoitza bati bide egingo diona. Uztailean 3 bizilagun bota zituzten jabe bereko alboko eraikinetik. Doneperiagara itzulita, abuztuaren 19an bota zuten bertako kioskoa eta irailaren 2an Udalak plazaren zati bat ireki zuen jendearentzat, goialdeko jolastokia, hain zuzen. Udalak aurreratu duenez, obra osoa ez da 2022ko martxora arte amaituko. Horrez gain, Elorrietako Carmelo Larrea lorategian kirol-zirkuitu bat eta egoteko eremu berria egin dituzte, eta Andaluzia plazan antzeko bat eraikitzeko lanetan daude. Amaitzeko, Ibaigane eskola zegoen orubean ikasle egoitza amaitu dutela aipatu beharra dago. Hiru eraikinetan banatuta dago eta EAEko handiena da, 572 gelarekin. Lekurik egotekotan, ikasleentzat ez ezik hotel gisara erabiltzeko jarriko dituzte horietako 176.

Azken deustuarra

Deustuko Errepublika/Deustualdea blogaren arabera, Udalerri independentean jaiotako azken deustuarra hil da, Carmen Arteaga Arrizabalaga. Deustuko Erriberan jaio zen 1918an eta gutxigatik ez ditu bete 103 urte. "Beragaz daroaz XX. mendeko makina bat pasarte: itsasadarreko mareen dantza, gerrak moztutako gaztaroa, erbesteko bolada - Grenoblen egon zen bi urtez ama eta hiru ahizpagaz-, gerraosteko urte gogorrak, Artiach gaileta-fabrikako giroa, Ibarrekolandara aldatu osteko hamarkadak...", gogoratu du blogariak.

Ekitaldi antirrazista

Bilbao Reggae Skins kolektiboak Erriberan antolatu du aurten arrazakeriaren aurkako Bilboko 5. 'mundialitoa', Bizinahi auzo guneak eta hainbat elkartek lagunduta. Egitarau oparoa prestatu zuten Irailaren 4an. Besteak beste, jatorri eta adin ezberdinen arteko futbito eta saskibaloi partidak, reggae doinuak, erakusketak, bazkaria, azoka eta txiki guneaz gozatzeko aukera izan zuten bertara hurbildutakoek. Beste behin ere, aniztasuna aldarrikatu eta arrazakeria gaitzetsi zuten giro alai eta ezin hobean. Parte hartzea handia izan eta jende asko hurbildu zen egun osoan zehar.

TAO

Alfonso Gil Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko zinegotziak jakinarazi du 2022ko lehen hiruhilekorako TAO zerbitzua ezarriko dutela Ibarrekolandan eta San Inazion, baita Abusun ere. Gainera, ordutik aurrera bazkalorduan ez da etenik egingo zerbitzuan, hau da, 09:00etatik 20:00etara bitarte nahitaezkoa izango da leku hauetan aparkatzeagatik ordaintzea.

Arrauna: Deustu zori-zorian

Aukerak izan dituen arren, azkenean Deustu Arraun Taldea ez da Euskotren Ligara igo. Talde osoak denboraldi bikaina egin du hasiera-hasieratik, eta playoffa jokatzeko txartela lortu bazuen ere, ezin izan zuen Tolosaldearen nagusitasuna gainditu. Irailaren 18an eta 19an egin zituzten kanporaketak, Bermeon eta Portugaleten, hurrenez hurren. Tolosaldeak, Deustuk eta Galiziako Cabo de Cruz taldeek jokatzen zuten igoera, eta Hondarribiak jaitsiera. Bi jardunaldietan Tolosaldea izan zen garaile; Deustu, bigarren eta hirugarren saio bakoitzean. Sailkapen orokorrean bigarren izan arren, ez da meritu nahiko izan emakumeen liga gorenean sartzeko, plaza bakarra baitzegoen jokoan.



Urtea: 1962

Txema Luzuriaga

Zumalde marmoldegia

Deustuko industriaren inguruko irudi sorta hau egitera animatu naiz Deusturen beste aurpegi bat erakusteko nahiarekin. Izan ere, jende askok Deusturen irudi bukolikoa du: bere baratzeekin, bere tomateekin, bere basierriekin, etab. Deustuk ere industria, tailerrak eta enpresak zituen, gehienetan itsasadarraren inguruan, eta ausartuko naiz esatera Bilbon baino garrantzitsuagoak ere izan zirela.

Deustuko Zubiaren ingurua eta Botikazaharra ikusten diren lehen irudi honetan, Zumalde marmoldegia dago, gaur egungo Francisco Maciá kalearen hasieran zegoena. Marmoldegiaren ondoan, Ramon Andresen 'Oberen' burdinola zegoen. Eta haren parean Industria Electromecánica S.A. zegoen, Carlos Haya 1 (gaur egun Francisco Maciá) helbidean. 1914an eratu zen, eta aireko tornuak eta zulagailu erradialak eraikitzen zituen.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA
TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfnona: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez euskara zerbitzua
Probatu herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Zein zailtasun topatu duzu ikasturte hasieran?

Aitor Sarrionandia-Ibarra Fernandez

Itziar
Deustuko Doneperiaga

Done Petri plazako obrek asko zailtzen dute etxera joatea, Hizkuntza Eskolara joateko edo etorbidetik paseatzeko; Udal-bizikletak hartzeko errepidetik joan behar da...

Arantza
Deustuko Doneperiaga

Lantokian zailtasunak izaten ari naiz eta horretaz gain, alaba 14:15ean ateratzen da ikastolatik.

Jabier
Aperribai

Metroaren ordutegi murritza, tabernak hirurak arte zabalik egon daitezke eta metroa ordu batetan amaitzen da. Nola itzuliko naiz etxera?

Kristina
Deustuko Doneperiaga

Nik ez dut zailtasunik izan, nire marroiak senarrari bideratu dizkiot eta oporretara joan naiz.

Idoia
Deustuko Doneperiaga

Ikastolara itzultzeak diru gehigarria ekarri du, iraileko aldapa, eta familia eta lana uztartzea oso zaila egin zait.

Xabier
Galdakao

Parisera joan nintzen antropologia soziokulturala ikastera joan nintzen eta agertu nintzenean beste ikasleek korridorea egin zidaten, ni irakasle nintzela pentsatzen zutelako, burusoila izateagatik.

>> ARTEA

PABILOI 6: 10 URTE SORTZERA JOLASTEN

Hamarkada bete du Deustuko Erriberako antzerkigintzaren eta ikus-entzunezkoen muina den Pabiloi 6k. Ibilbidea laburtu digu Maite Gonzalez komunikazio arduradunak.

Testua:
Andoni Lopez Virues

"Aktoreak materia kontratagarriak dira", Ramon Bareak elkarrizketetan erabili izan duen esaldia da. Maite Gonzalezek, P6ko komunikazio arduradunak, berreskuratu du Pabiloi 6ren sorrerari buruz mintzatzeko. Nahiz eta oso bortitza izan daitekeen esaldia, era egoki batean aplikatu dakioke 2011ko testuinguruari, non aktoreak egon bazeuden, baina antzezten hasteko aukerak eskasak ziren. Horrela azaltzen du Maitek duela hamar urte izan zen P6ko sorrera: ikus-entzunezko munduarekin zerikusia zuten 13 pertsona elkartu ziren sormenarekin jolasteko eta aktore ezberdinei aukera emateko.

Lekua, izena, proiektuaren misioa... ez dira kasualitatea, inguruko iragan industrialarekin ere bat baitatoz: fabrikak, pabiloiak, sortzeko leku bat. 2011ko Aste Nagusian aurkeztu zen proiektua, Marivi Bilbao aurkezpenaren amabitxia zela. Bilboko Aste Nagusi horretarako arratsaldeko eta gaueko emanaldiak eskaini zituzten, eta, behin Aste Nagusia bukatuta, 200 bazkide sortzaileek haien ekarpena egin zuten butaka sinboliko baten truke Pabiloi 6 gorpuzteko. 2011ko urritik aurrera, etengabe egon dira lanean Deustuko Erriberako txokoan.

Maite Gonzalezek gogoratu ditu lehenengo urteak. 12 ikusle izatetik, 30 izatera pasatu ziren. Urteak igaro ahala, *sold out*-ak iritsi ziren. Bazkide sortzaileak oso garrantzitsuak izan ziren, baina azpimarratzekoa da ere, urteetan zehar Pabiloi 6k publikoarengandik jaso duen babesa. Gaur egun ere, sozio izateko bi modu daude: bazkide aktiboa, urtero 120 euro ordaintzen dituena eta %30eko merkealdia jasotzen duena; eta bazkide kolaboratzailea, urtero 15 euro ordaintzen dituena %20 ko merkealdiaren truke. Aktiboek, gainera, parte hartzen dute Pabiloi 6ko asanbladetan eta erabakietan bozka emateko aukera daukate.

10. urteurrena berezia izango da, baina, urtero bezala, aurtengo denboraldia Aste Nagusian hasi da berreskuratutako obra batekin eta estreinaldi batekin: *Gris; morirse en bilbao* (Gazte Konpainiaren eskutik) eta *Palabrerismos*.

Pabiloi 6ko bizitzaren errepaso kronologikoa egiten, Maite Gonzalezek geldialdia egin du 2015. urtean. Gazte Konpainia jaio zen. Gaur egungo aktoreek iraganean zuten profil ezberdin bat betetzen dute orain. Prestatuago daude, gehienetan eskola batean ikasi dutelako, eta antzerkiaz gain, dantza, musika eta beste hainbat diziplina ere menderatzen dituzte.

2015. urte horretan Romeo y Julieta obrarekin estreinatu zen Gazte Konpainia. Jada 9 ikuskizun eskaini ditu, haien artean 3 produkzio propio: *En Standby, Todo saldrá bien* eta *Gris: morirse en Bilbao.*

Baina, aldaketak ez ziren 2015ean amaitu. 2020an Gazte Konpainiako kideei gestio irekiago bat proposatu zieten, haien esku geratuko zena. Momentura arte antzezleak izan zirenak, espazioaren kudeaketaren parte bihurtu ziren.

Oraingoz 34 ekoizpen propioko antzezlan egin dituzte, eta aurten zenbaki hori handituko da. Ospatzekoa den denboraldi honetan hainbat estreinaldi emango dituzte, horien artean *Yo maté a mi hija Hildegart, Tratando de hacer una obra que cambie el mundo*, eta, Maite Gonzalezek definitu duen bezala, urteko ekoizpen propio handiena: *Luces de Bohemia*, Ramon Barea zuzendari duena.

http:// sarekada

Mandamentu hipermodernoak

Iñigo Martinez Peñak liburua argitaratu berri du Elkar argitaletxearekin batera. 2018-2019 ikasturtean PREST! aldizkarian izan genuen iritzigile, bada, oraingoan, luzatu eta saiakera osatu du Arangoitin bizi den Gasteiztarrak. Mandamentu hipermodernoak lanean "gure aroa bereizten duten ezaugarriak" aztertu ditu, 19 mandamentu zerrendatu arte. Gure munduari eta gure buruari begiratzen laguntzen du lanak, gero eta gauza gehiago egin beharraren inguruan pentsaraziz.

Aisian eta ostalaritzan hizkuntza eskubide urratze gehien

Udako oporraldian gertatu diren hizkuntza eskubideen urraketak jaso ditu Hizkuntz Eskubideen Behatokiak, eta aisia eta ostalaritza izan dira intzidentzia gehienen jatorria. Iazko udan jasotako kexa kopurua mantendu da aurtengoan.

Zulora

Sareko telebista saio berria da Zulora, Hiru Damatxo ekoiztetxeak Gaztearentzako egina eta Ane Zuazubiskarrek aurkeztua. Lehen denboraldiko sei ataletan pil-pilean dagoen gai bat hartu eta hiru gazte bilduko dituzte horren bueltan solasean. "Bajerak, lokalak, etxabeak. Zuloak azken finean. Aurten itxi egin badizkigute ere; halako tokietan gaude gu eroso. Hitz egiteko lasai, kanpoko zarata eta epaietatik libre. Konspiratzeko prest; eragiteko; konpartitzeko eta entzun gaitzaten baita hor kanpoan ere", dio aurkezpenak.

>> AUTOGESTIOA

HIRU HAMARKADA AUTOGESTIOAREN DEFENTSAN

Urriaren 13tik 23ra bitarte Deustuko Gazte Lokalaren 30. urteurrena ospatuko dute. Urtemuga dela-eta, egitarau kultural eta politikoa prestatu dute gaztetxeko kideek. Urriaren 23a izango da egunik esanguratsuena.

Testua eta argazkiak: Deustuko Gazte Lokala

Deustuko Gazte Lokala okupatu zenetik 30 urte bete dira aurten. 1991ko ekainaren 21ean, garaiko gazte asanbladako kideek ilusioz eta borrokarako gogoz bete zuten hutsik zegoen Luzarra kaleko merkatu zaharra. Orduantxe jarri zuten gaur egun zutik dirauen Deustuko Gazte Lokalaren zimendua. Txinparta piztu zuten 1991an, eta 2021ean bizirik dirau suak.

Egun, bertan dauden norbanako eta taldeek zenbait puntu komunen defentsa eta praktika dituzte oinarri, Gazte Lokalaren ezpiritua bizirik mantenduz. Autogestiotik abiatuta, okupazioaren defentsa nola auzolana, elkartasuna, antolakuntza kolektiboa eta zapalkuntzarik gabeko gizarte baten defentsa ditu, besteak beste, balio nagusi espazio okupatuak.

Urteen joan etorrian askotarikoak izan dira espazioa ekitaldiz eta bizitzaz bete duten norbanako eta taldeak. Lau pareta hutsali zentzua ematen jardun dira deustuarrak. Horretarako erak, hamaika, eta, pareten memorian gordetako oroitzapenak, zenbakaitzak: belaunaldi aldaketak, hutsarazte aginduak, taldeen joan etorriak, musika taldeen kontzertuak, entseguak, herri bazkariak, txalaparta

saioak, barazki landatze eta jasotzeak, hitzaldiak, pankarta margoketak, fatxada margoketak, auzolanak, asanbladak, bilerak, proiekzioak, txoringitoak, antzerki emanaldiak, elektrizitate tailerrak…. Behin hasita, bukaezina izan liteke zerrenda. Baina, ekintza guzti horiek, eta beste asko, Deustuko Gazte Lokalak gordetzen ditu.

Egitarau oparoa

Bizipenen eta memoriaren zerrenda luzeari segida emateko asmoz dator 30. urteurrena. Berez, ekainaren 21ak behar luke urtemuga eguna, orduan okupatu baizen merkatu zaharra. Gaztetxeko kideek, ordea, hausnarketa eginda bi zatitan banandu dute ospakizuna. Batetik, egunean bertan ekitaldi xume bat antolatu zuten gaur gaurkoz eraitsia izan den Done Petri plazako kioskoan. Urteurrena dela eta egindako jertse eta elastikoak saltzeko baliatu zuten eguna, eta Gorka Nastek girotu zuen astelehen arratsaldea. Euria zela medio, bertan behera utzi zuten auzoan zehar egitekoak ziren kalejira.

Orain, berriz, 10 eguneko egitarau oparoa prestatzen hasi dira. Urriaren 13an hasi eta hile bereko 23ra bitarte ekintza andana iragarri dituzte. Programazioaren parte izango dira ekintza kultural zein ekimen politikoak, eta urriaren 23a dute 'egun handia'. Urtemugari itxiera emateko egun osoko egitaraua prestatu dute: manifestazioa, elektrotxaranga, herri bazkaria eta kontzertuak iragarri dituzte oraingoz.

Autogestioaren defentsan

Kukutza gaztetxea eraitsi zutenetik 10 urte bete berritan, autogestioaren eta gune okupatuen erresistentzia aldarrikatu nahi dute Deustuko Gazte Lokaleko kideek urriaren 23ko manifestazioan. Gaztetxeak ere izan du erresistentzia garaia; nabarmenena 2017ko iraileko hutsarazte agindua. Bilboko udalaren asmoa bertan behera geratu zen azkenean, eta bizirik dirau gaztetxeak. Horregatik, Euskal Herriko gaztetxe eta espazio autogesionatu guztiei luzatuko diete 23ko manifestaziora bertaratzeko gonbita, aldarria ozenago entzun dadin.

Bizirik dago gaztetxea, bizirik autogestioa eta bizirik gazte antolatuen sugarra. 30 urte izan dira aurten, eta jarrai dezala okupazioaren defentsaren sokak.

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

‘Poke bowl’-a

Madariaga etorbideko 1. zenbakian ireki berri duten Kalma ‘poke’ tabernara joan gara. Ikasturtearekin batera ireki ditu negozio berriaren ateak Aingeruk, Nerearen laguntzarekin. Jatorri Hawaiiarra duen jaki honen berri eman digute lokalari azken ukituak eman bitartean.

Zailtasun maila: erreza

Egiteko denbora: momentuan

Prezioa: katilu txikia 8,50€; handia 10,50€

Berezitasuna: gertuko produktuak eta etxean egindako saltsak

Kontu batzuk

Pokea Hawaiiko entsalada mota bat da, arrain gordina eta arroza izan ohi dituena. Aingeruk aspaldi ezagutzen zituen *poke bowl* jatetxeak eta beti izan da sukaldaritza osasuntsuaren zale. Pandemiaren harira, gehiago kozinatzen hasi zen, eta lana galdu zuela-eta, negozio bat irekitzeko burutapena izan zuen. *Poke bowl* jatetxe bat ireki nahi zuen, baina ez hori bakarrik, eroso eta lasai egoteko taberna bat izatea nahi zuen. Horregatik, garagardoa, kafea eta gozoak ere eskaintzen ditu, gisako saltoki batean nekez aurkitu daitekeena. Hurbileko tratua eman gura duela esan digu, eta asmo horri jarraiki gertuko produktu eta hornitzaileekin lan egiten duela. “0 kilometroa asko zaindu dut, eta ingurumenean ahalik eta eragin txikiena egitea”, diosku. Material guztia birziklatua eta biodegradagarria, eta ahalik eta zabor gutxien eragitea dute helburu.

Kalmako Aingeru.

KALMA POKÉ BAR

Madariaga etorbidea 1

Astelehenetik igandera: 10:00-16:00 / 18:00-22:30

661 304 464

info@kalmapokebar.com

@kalmapokebar

www.kalmapokebar.com

Zelan egin?

Nork bere entsalada osatzen du Kalman, baina inor ez galtzeko bost pausutan banatu dute. Lehena, oinarria aukeratzea, sushi arrozaren kinoaren eta uraza nahasketaren artean. Ondoren, zerrenda luze bateko bi saltsa aukeratu daitezke. Gehien-gehienak etxean egindakoak dira. Jarraian, proteina hautatzeko momentua da: izokina, atuna, otarrainxka, oilasko errea, arrautza egosia eta proteina beganoak. Azken aurreko urratsa bost *topping* aukeratzea da, hala nola ahuakatea, wakamea, mangoa, tomatea, pepinoa, azenarioa… Eta, azkena, apaingarria: tipula kurruskaria, sesamoa, fruitu lehorrak, koko zatia, platano frijitua…

OSAGAIAK

Sushi arroza
Kalma mayo eta trufa mayo saltsak
Izokina
Atuna
Ahuakatea
Wakamea (alga)
Txerri tomatea
Tipula morea
Azenarioa
Sesamoa

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan…

Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA
Tfnoa: 94 447 45 00
BORDATXO JATETXEA
San Pedro plazako frontoiaren atzean

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

MADDI ARGOTE LEDESMA
Dantzaria

IPARRALDERA BIDAIA

Kultura gutxika-gutxika indarberritzen ari denaren seinale izan dugu hilaren 16an, 17an, 18an eta 19an. Aurtengo Umore Azokak Leioako kaleak astindu ditu hainbat eskaintza kulturalekin. Artearen sustapen honetan antzerkilariak, dantzariak, musikariak, akrobatak eta abar ikusi ahal izan ditugu haien lanetan. Proiektu honek, aldi berean, lan berriak aurkezteko aukera ematen die konpainia, kolektibo edota talde orori. Azkenengo honek, hain zuzen ere, egiten du berezi Umore Azoka.

Urteroko lez, Euskal Herriko dantzariek parte hartu dute proiektu aberasgarri honetan; hala nola Zinbulu Kolektiboak, Ertza Konpainiak, Haatik Konpainiak, Proyecto Larruak, Bilaka Dantza Kolektiboak... Talde askok euskal dantzak oinarri hartuta dantza piezak sortzen dituzte haien artean, eta lehenago aipatutako bat, Bilakan Dantza Kolektiboa dugu.

Baionan bizi diren bost dantzari eta musikarik osatzen dute kolektibo hau. Taldearen esanetan, "euskal dantzaren sustraien eta adierazpen abangoardistan barna ibiliz, musika eta dantzaren garapena sustatzeko sorkuntza espazio bat da Bilaka". Aurten, Leioako karriketan, *Hauts-basaide diptikoa* pieza aurkezteko aukera izan dute. Arbailetako arbasoek abesten dituzten kantuek, hegaztietan duten eragina eta arbasoek kantatzean sentitzen dutena islatzen du dantzatik Kolektiboak. Iparraldeko talde honek asko du esateko Euskal Herriko kulturaz eta naturaz, beraz, aukera izanez gero, ikustera animatzen zaituztet. Iparraldera bidai bat egitea beti baita merezigarri!

Doinua: Lau Urtez Behin Txapelketa

UNAI FORURIA EGIA
Elorri bertso-eskolako kidea

Uda atzean utzita
aurrez-aurre udazkena
ikasturte hasiera
apurtuz uda-etena
eta gure inguruan
aldatzen ari da dena
zuhaitzetan horitu da
behinola berdea zena
aldaketekin batera
aktibatzen da sormena
askotan ideietan be
ezin mantendu ordena
urtaro melankoliko,
denetatik ederrena
sarri konturatu gabe
maitemintzen gaituena

Leihotik begiratuta
Bilboren iluntasuna
estaltzen duen eraikin
nabarmen eta lizuna
etxe askotan argia
noizbait hitzeman ziguna
beste batzuen artean
zerura igo duguna
prezioak gora eta
guretzat karga astuna
aberasten den heinean
elektriken erresuma
argi-ilunean nahiz ta
argitzen duten iluna
haien eskutan ez al da
beltzago etorkizuna?

BIHOTZ ALAI
FOLKLORE DANTZA TALDEA

ANIMATU DANTZARA!

INFORMATU ETA IZENA EMAN:

bihotzalaidt@hotmail.com

Bihotz Alai Dantza Taldea

EUSKARA, BIHOTZETIK EZPAINETARA

Barruan daramazu kirol zaletasuna,
onena emateko gaitasuna, ahaleginduz gozatzekoa.
Eta barruan daramazu euskara ere,
kirola barrutik bizitzeko.

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO